

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. IRAILAK 27ko MINISTROEN KONTSEILUAN ONARTUTAKO NEURRIAK
2. NAFARROAKO GOBERNUAK 2013ko AURREKONTUA %8,8a MURRIZTUKO DU
3. ESTATU ESPAINIARREKO BANKAREN BEHARRIZANAK
4. LANGABEZIAREN IGOERA ETA GIZARTE BABESAREN JAITSIERA
5. LEHENDAKARIEN BATZARRA: DENAK ADOS POLITIKA BERBEREAN
6. ETXEBIZITZETATIK KALERATZEEN HAUNDITZEA ETA HAU EKIDITZEKO NEURRIAK
7. PROPOSAMENA: ISLANDIAK ZIGOR EPAIAK EZARRI DIZKIE KRISIAREN ERRUDUNEI
8. PROPOSAMENA: ELAK LEHEDAKARIGAI EI EGINDAKO PROPOSAMEN KONKRETUAK

1. IRAILAK 27ko MINISTROEN KONTSEILUAN ONARTUTAKO NEURRIAK

Joan den Irailaren 27an Ministro Kontseilua ospatu zen eta bertan hainbat neurri onartu zituzten, oraingoan ere murrizketa laboral eta sozial larriak tartean direlarik. Bilera honetan adostu zituzten 2013rako Aurrekontu-Proiektua, neurri fiskalak, Politika Ekonomikorako Estrategia Espainiarra edota erreforma laboral eta negoziazio kolektiboaren garapena.

A) 2013rako Aurrekontu-Proiektua

Aurrekontu-Proiektuan 2012ko aurrekontuekiko gastuan %5,6ko gorakada bat iragarri dute, bere osotasunean zorraren interesen ordainketara bideratuko dena. Zorraren interesak 38.590 milioi eurotan zenbatezten dira. Interesen zenbatekoa 2012an baino %33,8 gehiago suposatzen dute. Zorraren handitzearen zergaitia diru publiko asko bankuei ematen ari direlako da (orain arte 115.000 milioi euro baino gehiago). Honela zor pribatua publiko bihurtzen dute eta honen ordainketa gizarte ongizatearen suntsitzearekin daramate aurrera, pobrezia eta langabezia gehitzen doalarik. Gainera, seguru gaude aurkeztutako aurrekontuak ez direla beteko eta 2013an zehar murrizketa berriak iragarriko dituztela lan eta gizarte eskubideen kaltetan.

Aurrekontu-Proiektuaren edukietan nabarmentzen ditugu:

- Administrazio Publikoko langileen soldaten izoztea.
- Pentsioen %1eko igoera. Badirudi pentsiodun pertsonak ez dutela aurten galdutako eros ahalmena berreskuratuko.
- Ministerioen gastu totala %8,9a murrizten da.
- Langabezi prestazioen gastua %6,3 murriztuko da nahiz eta gobernuak badakien langabeziak gora egiten jarraituko duela.

Neurri fiskalei dagokienez, sarrerak handitzeko

helburuarekin, PFEZean eta Sozietateen gaineko Zergan aldaketak planteatzen dituzte, hala nola, estatuko Loteria eta Apustueta jasotako 2.500 euro baino gehiagoko sariei %20ko zerga berri bat jartzea, ohiko etxebizitzan egindako inbertsioari dagokion kenketa ezabatuko da 2013tik aurrera egindako erosketetan edota enpresentzako amortizazio erregimena aldatuko da. Horrez gain, lege berriak adostuko dituzte, guztiak irauzurraren aurka bideratuak eta azkenik kode penalaren erreforma egingo dute.

B) Hainbat erreformaren iragarpena, adibidez pentsioak

Politika Ekonomikorako Estrategia Espainiarraren barruan gobernuak datozen sei hiletan 43 ekinbide lege mailara pasatzeko konpromezua hartu du. Argitaratutako dokumentuan honakoak dira aipagarrienak:

- Urtea bukatu aurretik, pentsioen aurkako beste eraso bat jarri dute martxan. Iraunkortasun faktorea arautzea proposatzen dute, pentsio sistemaren parametroak aldatzeko. Ematen duenez Raxoik pentsio berrien zenbatekoa aldatuko du edota jubilaziorako adina aldatuko du. Gainera aurrejubilazioan eta jubilazio partzalean ere aldaketak egingo dituzte. Luis de Guindos Ministroaren hitzetan pentsioen legea berehala legezkatuko da beraz, ez dute Toledoko Itunean eztabaida luzatzeko asmorik.
- Mutualitateen erreforma egingo dute (hau ere urtea bukatu baino lehen), bajaldiak murrizteko eta altak bizkortzeko. Beraz, alde batera utziko dute langileriaren osasunaren zaintza.
- Zerga Agintaritza Independiente bat eratuko dute kontu publikoak gainbegiratzeko Egonkortasun Legearen arabera eta defizitaren helburuak betetzeko.
- Sistema finantzieroaren erreformari jarraipena emateko, "banku txarra" deritzona jarriko dute martxan. Gobernuaren arabera banka espainiarraren egokitzapenak BPGdren

%20a suposatuko du. Ostiralean jakinarazi zuten Oliver Wymanen txostenean (ikusi 3. puntua), estatu espainiarreko bankuek beste 53.000 milioi euro beharko dituzte eta gobernuak aurreikusten duenez, gutxienez 40.000 milioi euro jarri beharko ditu.

- Lan-merkatuko eta enplegu-politiketako aldaketa gehiago egingo dira. Aldaketa garrantzitsuenak prestakuntza kontratuaren inguruko araudiaren garapena eta lanbide-heziketa eredu duala ezartzeko oinarrien zehaztapena dira.

Laneko Bitartekaritzan berriz, argi uzten dute helburua enpleguaren inguruko negozioa erraztu eta zerbitzu publikoen egitekoa gutxitzea dela.

- Arlo publikoko erreforma egiten jarraituko dute, aurten hainbat erabaki hartuko direlarik. Estatuko legedian osasun-, hezkuntza- eta menpekotasun-zerbitzuak murrizteko edota telebista autonomikoak kudeatzeko tresnekin batera, autonomia-erkidego guztietarako ezarriko diren Plan Ekonomiko-Finantzieroetako jardunbideak izango dira, baita Toki-Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunerako Legea ere; honek udalen eskumenak zehaztu eta bikoiztasunak saihestuko ditu eta egitura administratiboak gutxitzea ekarriko du.

- Eta azkenik, telekomunikazio, garraio eta energia sektoreak liberalizatzen jarraitzeko jardunbide berriak ezarriko dituzte.

C) Negoiazio kolektiboaren erreformaren garapena

Errege-Dekretuz Gobernuak Hitzarmen Kolektiboaren Batzorde Kontsultibo Nazionala arautu zuen, joan den otsailean erabakitako erreforma laboral eta negoiazio kolektibokoa garatzeko. Erreforma hark Batzorde honi ematen dio enpresen eta langileen ordezkarien artean dauden desadostasunak konpontzeko ahalmena, hitzarmena ez aplikatzeko prozeduretan. Errege-Dekretu honekin gobernuak hitzarmenak ez aplikatzeko enpresen interesen aldeko beste urrats bat egin du, dekretuak ezartzen baitu

alderdien arteko akordiorik ezean erabaki bat hartuko dela.

D) Ondorioak

- ELAk Espainiako Gobernuaren erabakiak ez ditu onartzen. Eskubide laboral eta sozialentzako kalte handia dakarte eta jendearen bizi eta lan-baldintzetan atzerakada izugarriak iragartzen dituzte.

- Bankuei dirutza eman die, are gehiago emango diete, eta diru hori gizarte-gastutik kentzen da (pentsioen erosteko ahalmena galtzen da, administrazioetan diharduen lanpostuak ere bai, langabezia prestazioak jaitsi, enplegu publikoa murriztu, zerbitzu publikoen kalitatea kaltetuz, etab.). Lapurreta egiten ari dira, ekonomiako, finantzetako, hedabideetako eta politikako botereen laguntzaz.

- Erakundeen eta alderdi politikoen artean sakoneko akordio bat dago politika hauek aplikatzeko, agintean zein dagoen gorabehera. Itun hau botere-finantzekin zerikusia duten kontu guztietan eta Konstituzioaren erreformarekin agerian geratu zen: honen ondorioz zorra ordaindu beharra beste edozerren gaintetik jartzen dute. Honek gero eta gehiago urruntzen ditu klase politikoa eta herritarak. Gero eta nabarmenago da agintzen dutenek ez dituztela herritarren gehiengoaren interesak ordezkatzen.

- Gobernuaren neurriek, esaterako pensioei buruzkoek, nabarmen uzten dute ez dagoela delako elkarrizketa sozialerako tokirik. Izatekotan honek politika ultraliberal bat onesteko beste xederik ez du, herritarren gehiengoaren eskubideei inoiz ezagutu den erasorik latzena egiten ari den politika.

- Espainiar gobernuak zergei buruz hartutako erabakiek nabarmen uzten dituzte hiru Foru-Aldundiak eta Nafarroako Gobernuak. Krisi betean egon arren, erakundeok ez dute zerga-politika aldatu. Biltzen den diru kopurua jaisten ari dela egiaztatu besterik ez dute egiten, eta horrenbestez lagundu egiten dute defizit publikoa murrizteko bide bakarra gizarte-gastua mozterakoan.

- Greba orokorra deitu genuenok arrazoa genuen. Hala ulertu zuen euskal langileklasearen gehiengoak, egun horretako lanuztean eta mobilizazio handietan parte hartu baitzuen. ELAk berretsi egin behar du ezinbestekoa dela mobilizatzen jarraitzea eraso hauei aurre egiteko eta politikak alda daitezten lortzeko. Halaber, Euskal Herrian sortu den gune sindikal eta sozialak erakunde desberdinen lankidetzaz ahalbidetzen duela uste du, helburuak eta jarduteko moduak partekatuz.

[ELAren balorazio osoaren dokumentua ikusi](#)

2. NAFARROAKO GOBERNUAK 2013KO AURREKONTUA %8,8a MURRIZTUKO DU

Nafarroako Gobernuak iragarri duenez, 2013ko gastu muga 3.384,5 milioi eurotan ezarriko du, 2012koa baino 327,1 milioi gutxiago.

Aipatzekoa da 2012ko gastu muga dagoeneko murriztua ere izan dela (behin 132 milioi eurotan eta beste behin 53,9 milioi eurotan). Beraz, pentsatzekoa da 2013ko gastua ere urtean zehar txikiagotuko dutela. Izan ere, horrelakoa da egiten duten etengabeko murrizketa politika.

Baina hau horrela izanda ere, AHTaren diru partidak bere horretan dirau. Aurreikusten den gastua 68,5 milioi eurotakoa izango da 2013an (2012an 134 milioietako da). UPNren lehentasunak argi ikusten dira: osasunean, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan... murrizketa ikaragarriak egiten ari diren bitartean, alferrrikako obra suntsitzaile batetan horrelako dirutza gastatzea erabaki baitute.

Ezin da espero izan langileon eta gehien sufritzen ari direnen egoerak hobera egitea modu honetan. Murrizketa politikak beren lana egiten ari baitira: langabezia gehiago, pobrezia gehiago eta gizarte babes txikiagoa. Hau da Nafarroako Gobernuak aukeratutako bidea.

3. ESTATU ESPAINIARREKO BANKAREN BEHARRIZANAK

Joan den ostiralean argitaratu zuten Oliver Wyman kontsultorak estatu espainiarreko bankaren egoerari buruzko txostena. Txosten honetan irakur daitekeenez estatu espainiarreko bankak 53.745 milioi euroko kapital defizita dauka eta ia erdia Bankiari dagokio (24.743 milioi euro).

Erresistentzia frogak hauek paperean egindako simulazioak dira, ekonomiaren okertze orokor baten aurrean, langabeziaren igoerarekin, kredituen ordaintze ezarekin eta inbertsioen balio gutxitzearekin, banku eta kutxek duten ahalmenaren inguruan. Kasu honetan saiakerak egiteko jarritako oinarrizko testuingurua hurrengoa da: BPGdren %1,7ko jaitsiera metatua 2014rarte eta %23,4ko langabezi tasa. Kontutan hartzen den bigarren testuingurua, testuinguru zaila da, honako ezaugarriekin: BPGdren %6,5eko jaitsiera metatua 2014 urterarte, batzbesteko %29ko maileguren ordainketa eza eta %27,2ko langabezia. Oinarrizko testuinguruan kreditu erakundeek ustezko galerei aurre egiteko benetako kapitalaren (Tier1) portzentaia %9koa da eta testuinguru zailagoan %6koa.

Guztira 14 banka erakunde aztertu dira, estatu espainiarreko sistema finantzieroaren %90a ordezkatzeko dutelarik. 14 banketxe hauetatik 4 nazionalizatutakoak dira, hau da FROBak (Fondo de Reestructuración y Ordenación Bancaria) kontrolatuak. Guztira, txostenaren arabera, nazionalizatutako lau banketxe hauek 46.206 milioi euroko berkapitalizazio beharrezana dute. Bankia zerrendaburu da 24.743 milioi euroko kapital beharrezanarekin, atzetik Catalunya Caixa 10.825 milioi euroko beharrezanaz, Novagaliciak 7.176 milioi euro behar ditu eta Banco de Valenciak beste 3.462 milioi euro. Lau erakunde hauek kapital beharrezan osoaren %86a batzen dute.

Nazionalizatuak izan ez diren beste hiru bankuk kapital beharrezana dute: Banco Popular (3.223

milioi euro), Banco Mare Nostrum (2.208 milioi euro) eta Ibercaja, liberbank eta Caja3 ren arteko fusioa (2.108 milioi euro).

Aztertutako gainontzeko zazpi bankuek ez dute kapital beharrik. Hauetxek dira: Santander, BBVA, Caixabank, Kutxabank, Sabadell, Bankinter eta Unicaja eta Caja España Dueroren arteko fusioa.

2011 urtean egindako azket estres testean 5 banku espainiarrek ez zuten froga gauditu. Azterketa hau gauditzeko %5eko kaudimen koefizientea izatea beharrezkoa zen. 2010 urte bukaeran, kapital gehikuntzarik egin gabe 9 banku espainiarrek ez zuten beharrezko kaudimen koefizienterik froga gauditzeko. Eta 2011ko apirilean, kapital gehikuntzak egin ondoren 5 bankuk ez ezuten gauditu. Froga gauditu ez zuten bankuak hauek izan ziren: Unnim, CatalunyaCaixa, CAM, Caja3 eta Banco Pastor. Momentu horretan Espainiako Bankuaren esanetan, 5 banku hauek ez zuten kapitala gehitzeko beharrik espainiar finantzar sistemak bazituelako hornikuntza orokor edota bono bihurkor nahikoa eta froga egiteko orduan ez zirenak kontutan; beraien ustez hala izanez gero %5eko kaudimen koefizientea gaudituko lukete. Banka Europearreko Aginpidearen (EBA) arabera 7 erakunde espainiarrek froga justu gauditu zuten beraien kaudimen koefizientea %5 eta %6 bitartean zegoelako.

EBAren gomendioen artean zegoen ikuskariek froga gauditu ez zuten erakundeei kapital beharrianak betezea eskatzea. Espainiako Bankuak ziurtatu zuen nahiz eta froga ez gauditu espainiar erakunde batek ere ez zuela kapital gehikuntzarik behar erresistentzia frogen ondorioz. Elena Salgado, ordungo ekonomia presidente ordea, ziurtatu zuen emaitzak ezin hobeak zirela eta espainiar finantziar sistemaren sendotasuna bermatzen zuela.

Espainiako Bankuak adierazi zuen espainiar bankaren sektoreak gardentasun osoko froga bat egin zuela.

Estatu espainiarrean nota ona eraman zuten bankuetxeak honakoak izan ziren: Banca March, Kutxa, Unicaja, BBVA, BBK, Banco Santander, Banc Sabadell eta Bankia. Hauetxek izan ziren estatuko sistema finantzieroko kalitatezko baliabide onenak zituztenak. Handik urtebetera esanguratsua da adibidez, Bankiari gertatu zitzaiona.

Argi geratu zen 2011ko estres testaren froga fartsa haundi bat izan zela. Are gehiago 2010ekoak, non Irlandako bankuak esaterako, "osasuntsuak" zirela esan zuten eta lau hilabete geroago erreskate finantzieroa jaso zuten.

Aldiro sistema finantziarioari egiten zaizkion frogak zalantzarriak dira, orain arte egindako guztiak nabarmen geratu direlako argitaratu eta denbora gutxira. Joan den astean aurkeztutako txostenean, esaterako, testuinguruak azaldu dituguneko paragrafoan aipatutako benetako kapitalaren portzentaia desberdina da bi testuinguruetan. Arrigarria da testuinguru zailago batean galerei aurre egiteko kapitala oinarrizko testuinguruan baino baxuagoa izatea. Aipagarria da, portzentai hori legez finkatzen dela eta gobernuak 24/2012 Errege Dekretuz finkatu zuen: "kreditu erakundeek, gutxienez, dauzkaten arrisku esposizioen %9ko kapitala izan behar dute". Beraz, simulazioa %9a kontutan hartuta egin izan bazen bankuen kapital beharria ez litzateke 53.700 milioi eurokoa izango askoz ere altuagoa baizik. Akats hau nabarmen geratzen da "Entite bakoitzaren emaitzak" atalean Santanderrek eta BBVAk oinarrizko testuinguruan askoz ere kapital gutxiago agertzen denean testuinguru zailen baino.

Argi dago beraz, estatuko bankan izugarritzko galerak metatuko dituela eta arazo horren konponbidea zortzapena murriztea izango dela. Ez da egia mailegua ekonomia errealeara aterako denik eta begibistakoa da bankuak diru publikoaz erreskatatzen jarraituko dutela.

4. LANGABEZIAREN IGOERA ETA GIZARTE BABESAREN JAITSIERA

Langabe kopurua 213.816 pertsonatara igo da irailean Hego Euskal Herrian, abuztuan baino 5.339 gehiago eta 2011ko irailean baino 29.292 gehiago. Datu hauek %15,9ko langabezi tasara garamatzate, 27-EBeko %10,5a baino nabarmen altuagoa. Langabezia da arazo nagusia, eta arduradun politikoak ez dira batere berataz arduratzen. Defizit publikoaren murrizketari ematen diote lehentasuna, horretarako gero eta jende gehiago langabeziara daramaten politikak aplikatuz.

Langabeziaren datuak eta bere bilakaerarenak oso larriak badira ere, langabezia dauden egoera larria ere azpimarratu nahi du ELAK, langabeen %40,2ak ez baitu inolako langabezi saririk jasotzen. Portzentaje hau %38,1koa zen orain dela urte bete, eta prestaziorik gabeko langabeen portzentajeak igoz jarraitzen duela erakusten du honek. Era berean, langabeek jasotzen duten zerbatekoa gero eta baxuagoa da:

- Kotizaziopeko prestazioa jasotzen dutenen portzentajea murriztu egin da, eta kotizaziopekoa ez den saria jasotzen dutenena, aldiz, igo. Zehazki, kotizaziopeko saria jasotzen duten langabeen portzentajea %38,5koa izan da, orain dela urte beteko %39,6aren aldean.
- Etengabeko murrizketek ere eragina daukate langabezi prestazioan: uztailean eta abuztuan onarturiko langabezi sariaren zenbatekoan, lanaldi partziala dutenen langabezi sarian, edo eta langabezia subsidioan murrizketak, honen adibide dira, eta baita 400 euroak jasotzeko mugaketa ere.

Urteko lehen 9 hilabeteetan 645.718 lan kontratu sinatu dira Hego Euskal Herrian, eta hauetatik 39.547 bakarrik izan dira behin-betikoak. Agerian geratzen da, berriro ere, sinaturiko kontratuen gehiengoak behin-behinekoa izaten jarraitzen duela, kontratu guztien %93,9a izan baitira (2011ko lehen 9 hilabeteetan baino 3 hamarren

gehiago).

Aplikatzeko diren politikak langabezia, jendearen zailtasun ekonomikoak eta pobrezia areagotzen ari dira, eta era berean, atzeraldia sakontzen. Sektore finantzarioa saneatzeko helburuarekin gizartearen aurka doazen politika hauek praktikatzeko arduragabetasun osoa da, are gehiago, sektore finantzario hau izan dela egoera honetara eramane gaituena kontuan hartzen badugu.

Politiketan erabateko aldaketa eskatzen du ELAK, kalitatezko enplegua sortu eta jendearen lan eta bizi baldintzak hobetzeko. Hau da joan den irailaren 26ko greba orokorraren aldarrikapenatariko bat. **Mobilizazioa** da politikak aldatzeko bide bakarra.

5. LEHENDAKARIEN BATZARRA: DENAK ADOS POLITIKA BERBEREAN

Pasa den urriaren 2an, Erkidegoetako Lehendakariak (Yolanda Barcina eta Patxi López besteak beste) eta Estatuko Presidentearen, Mariano Rajoyren, arteko batzarra izan zen egoera ekonomikoaz eta Europaraz mintzatzeko. Batzar honek denon adostasunarekin bukatu zuen, eta hartutako erabakien berri eman zuten ondoren.

Horrelakoetan, kaleratzen den dokumentuak ez du neurri zehatzik azaltzen, asmoak eta hitz ponposoak baizik. Zentzu honetan, akordio honek ere ez du erabaki xehetik biltzen, baina argi uzten du poterean daudenek (nahiz eta partidu ezberdinetakoak izan) orain arteko murrizketa politika berberarekin jarraitzeko asmoa dutela.

Lehendakariak hartu duten erabaki nagusia Europatik datozen "defizit helburuak betetzea" da. Hau da, murrizketak egiten jarraitzea defizit helburua (2012an %1,5a eta 2013an %0,7a) bete arte, Europatik ezarritako politikak zalantzan jarri ere egin gabe.

Honetaz gain, beste neurri batzuen berri ere

ematen da, gehienak lehiakortasuna errazteko, “enpresa ekimenaren aldekoak diren ingurua eta Administrazio Publiko eraginkorra sortuz”, baita Europatik datozen neurriei babesa ematea “Europar Batasunean eta Eurogunean hartutako konpromisoak betetz”; Paktu Fiskala, defizitaren inguruko uztailleko Europako Kontseiluaren gomendioak eta Europako Kontseiluak Europako Sei hilkoaren baitan emandako gomendioak betez.

Nahiz eta diskurtso ekonomiko eta politiko ezberdinak egiten saiatu, poterean daudenek erabaki berberak hartzen dituztela erakusten du honek berriz ere. Nahiz eta partidu ezberdinetakoak izan. Beti politika berdina egiten dute, kapitalista.

6. ETXEBIZITZETATIK KALERATZEEN HAUNDITZEA ETA HAU EKIDITZEKO NEURRIAK

Etxebizitzetatik 525 kaleratze burutu dira Hego Euskal Herrian 2012ko bigarren hiruhilekoan; lehen hiruhilekoko 505ak gehituz, 1.030 kaleratzerekin aurkitzen gara urtearen lehen erdian. Zenbateko hau, informazioa dugunetik, 2007tik hona altuena da, eta batez beste egunean 5,7 kaleratze burutu direla erakusten du.

Kaleratzeon etengabeko igoeraren aurrean, gero eta ugariagoak dira gaitz honekin bukatzea eskatzen duten ahotsak. Magistratu batek (Edmundo Rodríguez) buruturiko proposamena dugu adibide berri bat: langabezia egotearen lehen etxebizitzaren hipoteka ordaindu ezin dutenei legezko luzamendua ematera behartu finantza erakundeak, egoera honetan daudenen kaleratzeak ekiditeko asmoz (orain arte luzamendu hau borondatezkoa da). Banku erakundeek eskaini beharko luketen luzamendu honi esker, lanpostu bat aurkitutakoan, hipotekaren ordainketarekin jarraitu ahalko lukete egoera honetan aurkitzen direnak.

Finantza erakundeek ahal duten erresistentzia gutzia jarriko diote beraien kontuetan eragina duten era honetako ekimenei, baina, gizarte

osoaren poltsikoetatik ordainduta jasotzen ari diren diru laguntza gutzia eta gero, zer gutxiago zor digute?

7. PROPOSAMENA: ISLANDIAK ZIGOR EPAIAK EZARRI DIZKIE KRISIAREN ERRUDUNEI

Johanna Siguroasdoittiren gobernu sozialdemokrata islandiarra Europako lehenengo gobernu izan da bankariak saritu ez dituen eta Islandia utzi zuten egoera ekonomiko larriaren arduradunak zigortu dituen.

Hau 2009an gertatu zen, aurreratutako hauteskundeek ezkerre boterera eraman zutenean. Hautatutako lehen ministraren asmoa lehen bait lehen krisiaren zergaitiak aztertzeo fiskal bat izendatzea zen baina kosta zen norbait aurkitzea lanpostua betetzeko. Postua aurkeztu zen hautagai bakarrak hartu zuen eta bost pertonek osatutako lantaldearekin hasi zen lanean. Bere izendapenetik hiru urte igaro direnena lantaldea ehun pertsona inguruk osatzen dute.

Beraien lana da iruzur susmoak eta 2009 aurretik egindako delituak aztertzea eta epai diligentziak haztea ustezko errudunen aurka. Eskuartean darabiltzaten ikerketen artean daude banka iruzurrak, informazio pribilegiatuaren erabilera bidegabekia, nortasun profesionalaren usurpazioa edo funtsen desbideratzea.

Ikertutako pertsona gehienak finantziar sektoreko arduradun ohiak dira. Beraietako askok herrialdea uztea erabaki zuten beraien karrerarekin beste toki batzuetan jarraitzeko, adibidez Luxenburgon.

Gaur egun epai batzuk atera dira. Byr bankuko bi zuzendari 4 urte ta erdiko kartzela zigorra ari dira betetzen. Krisialdi unean finantza ministeritzako gabineteko arduradun ohiak, bi urteko kartzela zigorra jaso zuen informazio pribilegiatua bidegabeki erabiltzearen. Kaupthing bankuko presidente ohia 500 milioi islandiar koro (3,2 milioi euro inguru) bankura bueltatzera zigortu

dute eta bere aktiboak izoztu dituzte.

CIGak eta ELAk joan den ekainean Auzitegi Gorenean salatu zituzten Gobernuko presidentek, Ekonomia ministroak eta BdEko gobernadoreak kontu publikoak arpilatzeagatik.

Izan ere, bi sindikatuek arduradun politiko horiei krisian izan duten erantzukizuna, egin duten kudeaketa eta hartutako erabakiek herritarrei eragin dizkieten kalteak leporatzen baitizkiete. Denuntzia honako hauen kontra aurkeztu zen: gobernuko presidente ohiak eta egungo presidente diren Jose María Aznar, Jose Luís Rodríguez Zapatero eta Mariano Rajoy; egungo ekonomia ministro den, Luis De Guindos, ekonomia ministro ohi diren Rodrigo Rato, Pedro Solbes eta Elena Salgado eta Espainiako Bankuko gobernadore ohiak diren Jaime Caruana eta Miguel Angel Fernandez Ordoñez.

8. PROPOSAMENA: ELAK LEHENDAKARIGAI EI EGINDAKO PROPOSAMEN KONKRETUAK

[Irakurri proposamenak](#)